

[Eusk/Cast] Uztailak 25, Manifestazio nazionala. Bilbon: Batasuna borrokan

U25 BATASUNA BORROKAN :: 28/06/2020

Presentamos esta iniciativa con el fin de promover la unidad y la activación combativa de las fuerzas de la clase obrera y sectores populares de Euskal Herria

[Euskara]

Azaltzen ditugun lau oinarri hauen eta bere edukinen inguruan Euskal Herriko langileriaren eta herri sektore ezberdinen indarren batasuna, elkar-kidetza eta aktibazio borrokalaria sustatzeko asmoz aurkezten dugu ekimen hau.

Gure herriak kontuan hartzeko moduko herri auto-antolaketaarako ahalmena erakutsi du. Adierazpen zehatzetatik harago, gaur aldarrikatu nahi ditugun irakaspen handien sortzaile izan den eta hamarkada luzetan zehar eta belaunaldiz belaunaldi mantendu den borroka eta erresistentziarako ahalmenaz ari gara. Nostalgiatik urrun baina gertatutako guztia gogoan izanda. Etorkizunez beteriko perspektibaz baina orainaldiak agindutako errealitatetik abiatuz.

Ekimen hau langileriaren magaletik sortzen da, gure herriaren bihotzetik. Jarraitu beharreko ildo hau dela ulertzen duten antolakunde eta adierazpen ezberdinetako militanteek, orainaldi latz honi astindua eman nahi dioten gazte errebeldeek, umiltasunetik bere borrokak eta esperientziak emandako onena transmititu nahi duten preso politiko ohiek edota, sigla zehatz bateko kide izan gabe, bere burua politikoki aktibatzeak aukera ikusi duten hainbat langilek,...proposatu, sustatu eta antolatzen dute ekimen hau.

Aurrerapausua emateko beharra, nahia eta betebeharra daukagu. Aurrera jotzeko beharra, nahia eta betebeharra. Eta ekimen hau borrokaren bidetik aurrera egiten jarraitzeko mugarri berria izatea nahiko genuke. Horregatik eta horretarako, zu ere honen parte sentitzea espero dugu.

-Amnistia: burgesiak eta bere adar monopolistaren kontrolpeko estatuek eragindako errepresio faxistaren ondorioz errepresioa pairatu eta pairatzen duten preso politikoen kaleratze soilaz harago, preso politiko horiek defendatu zituzten aldarrikapenak asebetetzeko neurri eraginkorren aldeko borroka bezala ulertzen dugu amnistia, kapitalismoak eragindako askotariko zapalkuntza formen amaierarekin lotuz. Euskal Herriko kasuan aldarrikapen historikoa da Amnistia 1936tik gaur egunera arte, langileria eta beste herri klaseen borroka guztietan presente egon delarik indar guztiz. Amnistia Herri Frontearen 36ko otsaileko programan barne hartu zen eta milaka langile borrokalaria kaleratu zituen beste milaka eta milaka langileren bozka jaso ondoren. Amnistia izan zen frankismoaren azken urteetako herri-aldarrikapen nagusienetakoa eta, besteak beste, Amnistiaren aldeko borrokak ohartarazi zuen gure herria Erreforma konstituzionala zeritzona faxismoaren mozorrotze-operazioa baino ez zela izan, kartzelak egunetik egunera berriro bete zirelako Amnistia izena hartu arren, espainiar faxismoak bere buruari

emandako auto-indultu hutsa baino ez zelako eman. Amnistiaren aldeko borroka eta herri aldarrikapenen aldeko jarduerarekin kontsekuente izateak eragindako errepresaliatu politikoei elkartasun kontzientea izan da azken hamarkada luzeetan Euskal Herriko kaleetan borrokaren sua pizturik mantentzearen arrazoi nagusienetakoa, estatuari bere benetazko izaera agertzen behartzeko giltza. Amnistia jarraitu behar du izaten, perspektiba iraultzaile eta borrokalariarekin, herri langileak eta bere sektore kontzienteenak borrokaz defendatzen jarraitu beharreko aldarrikapena.

-Autodeterminazioa: bere eskubide nazionalak, bereziki, lurraldetasuna eta antolaketa politiko propioa askatasunez gauzatu eta egikaritzeko eskubideak ukatzen zaizkio gure herriari. Bi estatu burgesak, frantsesak eta espainolak, bere merkatuaren eta esplotazio sistemaren kontrolpeko muga geografikoak betikotzeko asmoz, nazionalki zatikatzen eta zapaltzen dute Euskal Herria. Autodeterminazio eskubidea gauzatu nahi dugu herri langilearen borrokaren bultzadaz, euskaldun bezala beharrezkoa dugun askatasun nazionala kapitalismoa historiatik behin-betiko baztertzeko dugun beharrezkin lotuz. Gure hizkuntza nazionala ikasiz, erabiliz eta aldarrikatuz. Herri izaera eta herri-kulturaren adierazpenak balioan jartzen eta defendatzen. Gure etorkizun politikoa askatasunez erabaki nahi dugu bai, baina ez ikuskera burgesak defendatzen duen bezala. Gure klaseak, langileriak, bere egiten du zapalkuntza nazionalaren aurkako borroka eta bere interesen aldeko borrokarekin lotzeaz gain, edukin aurrerakoiez betetzen du.

-Langileria: klase borrokaren baitan defendatzen dugun posizio politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala da guretzat langileria. Langileriaren parte gara, bere baitan gaude kokatuta, pairatzen duena ezagutu eta nozitzen dugu, gure munduaren ikuskera proletargotzarengandik, langileriarengandik abiatu egiten delako. Kapitalismoaren lurperatzailea izateko deitua dagoen indar historikoa da langileria. Kapitalismoa sostengatzeko ezinbestekoa den oinarri esplotatua, gizateriaren biziraupenaren bermea den lanaren sortzailea, aberastasun-meta amaigabeak ekoizten dituen indar historikoa. Herrialde bakoitzean ezaugarri partikularrak izan arren, mugarik ez duen eta nazioartekoa den aberri bakarra da langileria. Jatorriaren gainetik etorkizunera begira dagoen klase soziala da langileria, pizten dituen borroka gogor guztietan berdintasunaren eta elkartasunaren baloreekin ezaugarritzen dena. Gizarte berri baten eraikuntzari ekiteko unean burgesiaren eta bere soldatapeko txakur guztien beharrik izango ez duen motore iraultzailea. Bere helburu eta interesak irmo eta zuzen defendatu ahal izateko eta burgesiaren iruzur eta eragin ideologikoak gainditzeko klaseko erabateko independentzia ezinbesteko zaion klasea da langileria. Langileria da gure oinarria eta helmuga, munduko herrialde guztietako langileak batzeko deiari erantzunez, inoren kontra munduko edozein tokitan jazotako edozein injustizia barrenean sentituz bizitzeko bere hezibide eta antolakuntzari bide eman behar dion langileria.

-Antifaxismoa: burgesiaren adar monopolista atzerakoienak bortxaz indarrean jartzen duen menperakuntza forma zehatza da faxismoa. Ezaugarri komunak badituzte ere, forma ezberdinekin aurkezten zaigu faxismoa, eta parlamentarismoaren faltsutzea da haietariko bat. Antifaxistak gara kapitalismoa borrokatu nahi dugulako eta kapitalismoa borrokatzen dugu antifaxistak garelako. Oinarri horretatik ateratzen den irakurketa interesatu ororen izaera oportunistak salatuko dugu. Gogoan ditugu, gure eginez, nazioarteko borroka honen parte izan diren eta, bitarteko guztiak barne hartuz, hamarkada ezberdinetan faxismoaren

forma eta agerpen ezberdin guztiei aurre egin dioten munduko mugimendu, antolakunde, langile, partisano, maki, aktibista, gerrilari eta borrokalari guztiak. Esplotatzen eta zapaltzen gaituen estatu espainolaren kasu berezian, 1936-1939ko Erresistentzia Antifaxista ekarri nahi dugu gogora, eta bereziki, gure herriko militante, miliziano eta gudari antifaxista kontsekuenteenek emandako eredua. 1939tik, faxistek guda irabazi zutenetik, faxismoa da estatu espainolaren aurkezpen txartela, bere egitura politiko eta judizial gorenetan, Konstituzioaren jatorri eta edukinetan, elite monopolisten jardura esplotatzaile eta inperialistetan, botere judizial, indar errepresibo eta elizaren estamentu guztietan jaun eta jabe da faxismoa. Aipatu gabe ezin dugu utzi estatu frantsesean indarrean egondako nazien aldeko Vichyko Gobernuaren izaera 1945etik gerora indarrean mantendu zela depurazio faltsu baten ondotik, kolonialismoak eta jazarpen inperialistak, basakeri polizialak eta herri on askatasunarekiko mespretxuak ezaugarritzen duelako frantses estatua oraindik. Faxismoa ez da, erreformistek sinplifikatzen duten bezala, hauteskunde burgesen bidez gainditu beharreko alderdi politiko jakin baten diskurtso nazkagarri bat. Faxismoa burgesiak eskura duen menperakuntza forma da, arriskutsua da, gerrak eragiten ditu eta langileriaren esplotazioa biderkatzeko tresna da. Oraingo honetan, judutarrak eta konspirazio masonikoak baino, Covid-19a izango da faxismoa betikotzen jarraitzeko aitzakia. Herri borroka antifaxista denon ardura da. Ez dira pasako!

Ekarpen eta atxikimenduak: U25batasunaborrokan@protonmail.com

[Castellano]

Presentamos esta iniciativa con el fin de promover la unidad y la activación combativa de las fuerzas de la clase obrera y sectores populares de Euskal Herria en torno a estos cuatro principios básicos y su contenido. Nuestro pueblo ha demostrado una notable capacidad de auto-organización popular que por encima de expresiones concretas ha conseguido mantener durante largas décadas, de generación en generación, una posición de lucha y resistencia generadora de aprendizajes que hoy queremos reivindicar. Lejos de nostalgias pero sin olvidar nada de lo ocurrido. Con perspectiva de futuro pero situados en la realidad del presente. Esta iniciativa parte de la clase obrera, del corazón de nuestro pueblo. La proponen, promueven y organizan militantes de diversas organizaciones que entienden que este es el camino a seguir, jóvenes rebeldes con ansias de sacudir su complicado presente, ex presos y ex presas políticos que desde la humildad quieren transmitir lo mejor que dio su lucha y experiencia, obreros y obreras sin filiación concreta que han visto en ella una buena oportunidad para activarse políticamente sin tener por ello que pertenecer a una sigla concreta. Necesitamos, queremos y debemos dar un paso al frente. Necesitamos, queremos y debemos avanzar. Y queremos que esta iniciativa sea una sólida piedra por la que seguir avanzando por la senda de la lucha. Por ello y para ello, también contamos contigo.

AMNISTÍA:

La Amnistía es mucho más que la simple puesta en libertad de los presos y presas políticos que han sufrido y sufren la represión fascista de los estados controlados por la burguesía y sus capas monopolistas. Entendemos la Amnistía como la lucha en favor de medidas efectivas que sirvan para implementar las reivindicaciones que defendieron esos presos y presas políticos, y la unimos a la supresión de las diferentes formas de opresión generadas

por el capitalismo. Además, en el caso de Euskal Herria, la Amnistía es una reivindicación histórica que ha estado presente desde 1936 hasta hoy y ha adoptado especial protagonismo en las luchas emprendidas por la clase obrera y otras clases populares. La Amnistía formó parte del programa del Frente Popular en febrero de 1936 y sacó a la calle a miles de obreros y luchadores tras haber recibido los votos de otros cientos de miles. La Amnistía fue una de las principales reivindicaciones populares de los últimos años del franquismo y entre otros factores, fue gracias a la lucha pro Amnistía como nuestro pueblo comprendió que la llamada Reforma constitucional no fue más que una operación destinada a encubrir el fascismo. Las cárceles volvieron a llenarse de un día para otro ya que, pese a denominarla Amnistía, aquella operación no fue más que un auto indulto que se otorgó a sí mismo el fascismo español. Los represaliados y represaliadas generados con la actuación consecuente con la lucha pro Amnistía y las reivindicaciones populares y la solidaridad consciente con ellos y ellas ha sido una de las principales razones que han mantenido viva la llama de la lucha en las calles de Euskal Herria, siendo la llave que ha obligado una y otra vez a mostrar su verdadera cara al estado. La Amnistía tiene que continuar siendo, desde una perspectiva revolucionaria y combativa, una de las reivindicaciones que el pueblo trabajador y sus sectores más conscientes tienen que seguir defendiendo por medio de la lucha.

AUTODETERMINACIÓN:

A nuestro pueblo se le siguen negando sus derechos nacionales, el principio de territorialidad y el derecho a decidir en libertad su propia organización política. Euskal Herria sufre una partición y la opresión nacional que ejercen dos estados burgueses, el francés y el español, con el objetivo de eternizar las fronteras geográficas de sus mercados y sistema de explotación. Queremos implementar el derecho de Autodeterminación con el empuje de la lucha popular, uniendo la liberación nacional que como vascos y vascas deseamos con la necesidad de derrocar al capitalismo de forma definitiva. Aprendiendo, utilizando y reivindicando nuestra lengua nacional, el euskera. Poniendo en valor y defendiendo las expresiones de nuestra identidad y cultura populares. Queremos decidir en libertad nuestro futuro político pero no como lo defiende la posición burguesa. Nuestra clase, la clase obrera, hace suya la lucha contra la opresión nacional y además de unirla a la lucha por sus intereses, la dota de contenidos progresistas.

CLASE OBRERA:

La clase obrera es para nosotros y nosotras la posición política, económica, social y cultural que defendemos en la Lucha de Clases. Somos parte de la clase obrera, nos situamos en ella, conocemos lo que le toca sufrir y lo padecemos ya que nuestra visión del mundo parte del proletariado, de la clase obrera. La clase obrera es la fuerza histórica que está llamada a ser la enterradora del capitalismo. La imprescindible base explotada que sostiene el capitalismo, la conductora del trabajo que garantiza la supervivencia de la Humanidad, la fuerza histórica que crea un interminable volumen de riqueza. Salvando particularidades que puedan darse en cada país, la clase obrera es la única patria que carece de fronteras y es internacional. La clase obrera es la clase social que por encima del origen mira al futuro, y se caracteriza por los valores de igualdad y solidaridad que demuestra en todos los duros combates que emprende. La clase obrera es el motor revolucionario que a la hora de construir una nueva sociedad no necesita de la burguesía y todos sus mercenarios

asalariados. La clase obrera necesita la independencia de clase para poder defender firme y correctamente sus objetivos e intereses y superar los engaños e influencias ideológicas de la burguesía. La clase obrera es nuestra base y nuestra meta y así es como respondemos al llamamiento de unidad de los trabajadores y trabajadoras de todos los países, promoviendo la formación y organización de una clase que viva sintiendo profundamente cualquier injusticia cometida contra cualquier ser humano en cualquier parte del mundo.

ANTIFASCISMO:

El fascismo es una forma concreta de dominación que ejercen de forma violenta las capas más reaccionarias de la burguesía. El fascismo se nos presenta de diversas formas y con características comunes y una de ellas es la falsificación del parlamentarismo. Somos antifascistas porque queremos luchar contra el capitalismo y luchamos contra el capitalismo porque somos antifascistas. Denunciamos el carácter oportunista de cualquier lectura interesada que se denomine antifascista sin partir de esa base. Recordamos, y hacemos nuestros, a todas las organizaciones, obreros y obreras, partisanos, maquis, activistas, guerrilleras y luchadores que han formado parte de esta lucha internacional y en momentos históricos diferentes han hecho frente con todos los medios a su alcance a las diversas formas en las que se ha manifestado el fascismo. En el caso del estado español que nos oprime y explota, traemos al recuerdo la Resistencia antifascista de 1936 y 1939, y especialmente, el ejemplo dado por militantes, milicianas y gudarís antifascistas más consecuentes. Desde que los fascistas ganasen la guerra en 1939, el fascismo ha sido la carta de presentación del estado español. El fascismo está asentado, por citar algunos, en el origen y contenidos de la Constitución, en la actividad explotadora e imperialista de las elites monopolistas, en todos los estamentos de la judicatura, las fuerzas represivas y la Iglesia. Tampoco podemos pasar por alto el carácter del Gobierno pro-nazi de Vichy, todavía vivo en el estado francés tras una falsa depuración. El colonialismo y el acoso imperialista, la brutalidad policial y el desprecio hacia la libertad de los pueblos, siguen siendo las señas de identidad del estado francés. El fascismo no es, como simplifican los reformistas, un asqueroso discurso de un partido político concreto que vencer por medio de las elecciones burguesas. El fascismo es una forma de dominación que pone en vigor la burguesía, es peligroso, provoca guerras y sirve para multiplicar la explotación de la clase obrera. Esta vez, más que los judíos y las conspiraciones masónicas, usan el Covid-19 como excusa para perpetuar el fascismo. La lucha popular antifascista es responsabilidad de todos y todas. ¡No pasarán!

Aportaciones y adhesiones: U25batasunaborrokan@protonmail.com

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-nuztailak-25-manifestazio>